

# **GIDA DIDAKTIKOA**

**ERLIJIO KATOLIKOA**



*loturak*

**1 ANIZTASUNERA BIDEAN**

- ▶ Desberdintasunaren beldur gara?
- ▶ Hurbildu ala aldendu egiten gaitu elkarrengandik?
- ▶ Aniztasunak elkartu egiten gaitu!



**Hauxe ikasiko duzu:**

- Desberdinak bagara ere, Jainkoarentzat berdinak garena aintzat hartzen.
- Elkarbizitza hobetzeko, desberdintasun erlijiosoak eta kulturalak onartzen.
- Ebanjelioen bitartez, kristautasunaren balioak ezagutzen eta egunetik egunera gauzatzen.

Lehen eguna da eskolan. Ikasgela berria, irakasle berria eta bi ikaskide berri, Julie eta Faruk dute izena, eta ez dute gure hizkuntza ulertzen. Aparta izango da haien ohiturak ezagutzeko eta haien lagun bihurtzea!

Lurraren globoari begira aritu gara, eta nongoak diren azaldu digute. Ongietorria egin diegu, eta haiek ere txalo jo dute. Txaloen hizkuntza denok ulertzen dugu primeran!

### Testuingurua

Laugarren mailako ikasleek ikasturte berria hasi dute, eta bi ikaskide berri dituzte: Julie eta Faruk. Denen artean, txalo-zaparradarekin eman diete ongietorria, eta haiek ezagutzeko irrikaz daude... baina oraindik ez dute gure hizkuntza hitz egiten.

Ikasesperientzia honetan, ikasleak ohartuko dira desberdintasunek ez gaituztela banatzen, baizik eta aukera ematen digutela elkar hobeto ezagutzeko eta garen bezala onartzeko, Jesus eta samariarraren kasuan bezala.



### GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK

#### 10. G.H. DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA

Elkarrekin egiteko ekintzak bultzatzea da helburua, erlijio- eta kultura-aniztasuna sustatzeko eta besteek munduaz duten ikuspegia errespetatzen ikasteko.



### HEZKUNTZAKO ITUN GLOBALA

Zeharka, «**pertsona erdigunean**» gakoa lantzen da, gutxiespenezko eta axolagabekeriazko jarrerak baztertzeko.

### Plangintza

- **1. saioa:** Motibazioa eta testuinguruan jartzea. Esperientziatik abiatuta eta Umore-tanta bat. Desberdintasunaren beldur gara?
- **2. saioa:** Hurbildu ala aldendu egiten gaitu elkarrengandik?
- **3. saioa:** Aniztasunak elkartu egiten gaitu!
- **4. saioa:** Gure mundua hobetzen. Ospa dezagun kultura-aniztasuna! Zer ikasi dut?

### EBALUAZIO-TRESNAK

- Ebaluazio-fitxa.
- Konpetentziak ebaluatzeko errubrika.
- Autoebaluazioko, koebaluazioko eta heteroebaluazioko jarduerak.
- Metaezagutza: Zer ikasi dut?

### Orientabideak

- Hasierako iruditik eta egoeratik abiatuta, Semaforoa **pentsamendu-errutina** erabili (ikus Metologia aktiboan gida, irakasleentzako espazio digitalean eskuragarri), eta ikasleak animatu beste kulturen inguruan dakitenaz eta ez dakitenaz gogoeta egitera.
- Errutinaren emaitzetatik abiatuta, taldeak egin. Talde bakoitzak aurkezpen bat egingo du beste kultura batzuetako ohiturei, sinesmenei eta gertakari erlijiosoa bizitzeko moduari buruz.
- Ikasesperientziako lana motibatuzko eta ikasleei ebaluazio-irizpideak zein diren argi uzteko, *Hauxe ikasiko duzu* ataleko esaldiak irakurtzea eta bakoitzaren esanahia azaltzea gomendatzen dugu.
- Zenbait testu ebanjeliko erabili, ikasleei erakusteko Jesusek zer jarrera izan zuen juduak ez ziren pertsonekin: samariarrarekin (Jn 4, 5-26), ehuntari erromatarrarekin (Lk 7, 1-10), emakume kanaandararekin (Mt 15, 21-28), Gerasako deabrudunarekin (Mk 5, 1-20), etab.

## Esperientziatik abiatuta: hitz egin dezagun desberdintasunez

### Esperientziatik abiatuta: hitz egin dezagun desberdintasunez

Ikusi duzu «Izarrak Lurrean bezala» filma? Film indiar horretan Ishaan hauraren zailtasunak agertzen dira. Mutri ameslaria da, irudimenez betea. Baina beste umeek ez diote ulertzen, eta horiek sufrimendu handia eragiten dio. Hala ere, irakasle berezi baten laguntzarekin, nor den eta zertarako gai den konturatu da Ishaan.

- Badakizu zer den dislexia?
- Ishaani gertatu bezala, inoiz sentitu duzu ez zarela zure ikaskideen modukoa?
- Zure iritziz, talentu berberak ditugu denok?

Azaldu zure gogoetak ikaskideei.



### Umore-tanta bat



Munduan, herrialdearen arabera, aldatu egiten da batak besteari agur esateko modua. Herrialde bakoitzak bere **ohiturak** ditu, eta **agur egitea** horietako bat da.

«Ez dezatela inor iraini eta ez daitzelako sesiozale izan, bihozbera batzik, gizaki guzientzat oztantasan ez beteak.»  
Tito 3, 2

9

Lehenengo saioan gaude oraindik. Ikasleak aniztasunean bat etortzen garelako konturatu daitezenez, *Izarrak Lurrean bezala* filmaren zati bat ikusi (eskuragarri hemen: <https://links.edebe.com/ajvn>). Bideo horretan, irakasleak zenbait pertsona aipatzen ditu adibide gisa, ikasteko zailtasunak izan arren mundua aldatu baitzuten.

Ondoren, lau pertsonako taldeak osatu (ahal den heinean, kultura edo nazionalitate desberdinetako kideekin), eta Arkatzak erdira **lan kooperatiboko teknika** aplikatu, liburuan proposatutako galderei erantzuteko.

- Badakizu zer den dislexia?
- Ishaani gertatu bezala, inoiz sentitu duzu ez zarela zure ikaskideen modukoa?
- Zure iritziz, talentu berberak ditugu denok?

- Dislexiaren arazoa hobeto ulertzen laguntzeko, *Pentsatu - Jakin-mina piztu - Ikertu pentsamendu-errutina* aplikatu daiteke, eta gaiaren inguruan informazio gehiago bilatzea proposatu.
- Amaitzeko, mahai-ingurua hasi ikasgelan, erantzun gabe geratu diren galdera guztiak biltzeko eta pertsona guztien ezaugarrien artean dauden desberdintasunez gehiago ikastera animatzeko.

### Umore-tanta bat

- Komiki-bandari begiratu eta deskribatu: Nor ageri dira? Zertan ari da neskatoa? Zergatik harritu da? Nola erantzun du, mutikoak bere jokabidea azaldu dionean?
- Ikasgelan galdetu ea badakiten beste kultura batzuetan elkar nola agurtzen duten. Halaber, gure herrialdeko lurralde batzuetan eta besteetan agurtzeko dugun moduari buruz galdetu.
- Ikasleei azpimarratu agurra beste norbaitekin komunikatzeko eta hura ezagutu nahi dugula adierazteko modua dela.
- Mahai-ingurua hasi, eguneroko bizitzan agurra erabiltzen dugun moduari buruz: Jende guztia agurtzen dugu edo gure lagunak bakarrik? Leku batera sartzean edo handik irtetean, egun on edo arratsalde on esaten dugu? Zein iruditzen zaizu aukerarik onena: ikusten garenean elkar agurtzea, edo geure erara ibili eta albokoari kasurik ez egitea?
- Atalaren amaierako aipuaz hitz egin. Ikasleei galdetu: besteak agurtzeak zer zerikusi du bakean bizitzearekin, ulerbera izatearekin eta guztiak adeitasunez tratatzearekin?
- Amaitzeko, Itun Berriko Mt 5, 43-48 aipua aurkeztu, mendiko sermoiaren testuinguruan kokatu, eta 47. txatila azpimarratu. Honela dio: «Zuen senideak bakarrik agurtzen badituzue, zer egiten duzue berezirik? Jentilek ere ez dute beste horrenbeste egiten?» Ikasleei azaldu hori dela Jesusek bere jarraitzaileengan bultzatzen duen jarrera.

### Desberdintasunaren beldur gara?

#### Gure baitan!

Itzali gelako argiak. Demagun alrreak jo duela. Ezkutatu mahaiaren azpian. Saiatu pentsatzen zer sentitu duten beren herrialdeetik ihes egin behar izan dutenek edo etorkizun hobearren bila joan direnek.

— Zer sentituko zenuke zeuk halen lekuan egongo bazina?

— Ezagutzen duzu emigratu beharra izan duen norbait?

— Etxetik betirako joan aurretik, hiru gauza hartzeko aukera izango bazenu... Zer eramango zenuke?



#### Sentitzen duguna islatu!

Gai izango zinateke, modu artistikoan, elkarbitzarako beharrezkoak diren jokabideak irudikatzeko?

— Taldeka, aipatu hitzak, marraz, formak, koloreak, marrazkiak... Eta, horiek erabiltuta, egin lan artistiko bat. Bukatu eta gero, aurkeztu zuen lana beste taldeei.



#### Liskarrak desberdinak garelako?

Munduko gatazka asko eta asko desberdintasuna ez onartzeagatik gertatzen dira. Jesusek hainbat modu erakutsi zituzkien beste kulturekin harremana izateko. Zure jokabideak badauka Jesusek erakutsitakoren baten antza?

Jesus eta samariarra  
179. or.

Denok Jainkoaren seme-alabak garenez, pertsona guztiak anai-arreba gisa tratatu behar ditugula erakusten digu Jesusek.

10

## Desberdintasunaren beldur gara?

Lehen saioan gaude oraindik, eta ikasesperientziako lehen galderan zentratuta daude ikasleak.

Asmoa da, lehenik eta behin, ulertzea munduko lis-karren jatorrian desberdintasunak egon ohi direla, eta Jesusek irakasten digula guztiok berdinarak garela, Jainkoaren seme-alabak garelako.

### Gure baitan!

- Jarduera egiten hasi aurretik, bideo bat ikustea iradokitzen da, gerraren eta hondamendi naturalen eraginez beren herrialdeetatik alde egin behar izan duten pertsonei buruzkoa.
- Jarduera egin, eta ikasleei eskatu beldurra eta babesgabatasuna sentitzearen esperientzia barnera dezatela.
- Ondoren, orrialde horretan proposatutako galderei erantzuteko eskatu ikasleei. Posible bada, galderei erantzun aurretik *Ikusi – Pentsatu – Neure buruari galdetu pentsamendu-errutina* aplikatzea iradokitzen da.

### Sentitzen duguna islatu!

- Lau kideko taldeak osatu, eta konposizio artistiko bat egin, pertsonekiko errespetuan oinarritzen diren jokabideak erakusteko. Denbora izanez gero, *Kolorea – Sinboloa – Irudia pentsamendu-errutina* erabiltzea iradokitzen da.
- Ikasgelako txoko bat aukeratu eta prestatu, ikasleen sorkuntzak erakusgai jartzeko. Talde bakoitzari eskatu gainerakoei azaltzeko zergatik erabili dituzten elementu, sinbolo, kolore, material edo soinu horiek jokabideak islatzeko.
- Ikasgelan mahai-ingurua ireki, sorkuntzak ebaluatzeko. Ikasleei eskatu gehien gustatu zaiena aukeratzeko, hartutako erabakia justifikatzeko, eta portfolioan gordetzeko.

Gehien gustatu zaidan sorkuntza ..... izan da; izan ere, .....

### Liskarrak desberdinak garelako?

- **Elkarrekin ikasten:** *Jesus eta samariarra*, 79. or. Samariarra atzerritarra izan arren, Jesusek harekiko duen jarreraz hausnartu, eta proposatutako galderei erantzun.
- Eztabaida-taldeak osatu, eta ideiak trukatu eta gogoeta egin galdera honen erantzunen inguruan: nolako harremana izango zenuke zuk beste kultura batzuetako pertsonekin?
- Ondorioa ozen irakurri: «Denok Jainkoaren seme-alabak garenez, pertsona guztiak anai-arreba gisa tratatu behar ditugula erakusten digu Jesusek». Ikasleei proposatu esaldia kopia eta portfolioan gorde dezatela.

### Erantzunak

1. Erantzun irekia. Hauen arabera izango da: ikasle bakoitzaren barneratzea, pertsona mi-gratzaileen inguruan zer eta zenbat dakiten, eta emigratu beharko balute zer aukeratuko luketen beraiekin eramateko.
2. Erantzun grafikoa. Taldeka, konposizio artistiko bat egin behar dute.
3. Erantzun irekia. Ikasle bakoitzak kultura desber-dinetako pertsonekin harremanetan nola jartzen den azalduko du.

**Hurbildu ala aldendu egiten gaitu elkarrengandik?**

**Pertsona desberdinak, erlijio desberdinak, elkarbizitza ona**  
Zertan dira antzekoak eta desberdinak haur hauek? Erlijio bera izan ez arren, posible da hirurak elkarrekin bizitzea? Zergatik? Hitz egin horri buruz.

Rafael naiz, eta judua naiz. Sandra naiz, eta kristaua naiz. Fatima naiz, eta musulmana naiz.

Judeuek, kristauek eta musulmanek sinesmen desberdinak dituzte. Tenplu desberdinetan egiten dute otoitz, eta ez dute izen bera erabiltzen Jainkoa izendatzeko. Hala ere, batera eta bakean bizi daitezke.

**Hitz jakintsuak**  
Irakurri pasarte hauek:

«Egia esan, Allah justuen ondoan dago, ongia egiten dutenen ondoan». Korana 16: 129

«Ez dituzue etorkinen eskubideak baztertuko». Dt 24, 17

«Arrotz izan nintzen, eta ebean hartu ninduzu». Mt 25, 35

Hitz egin zure ikaskideekin pasarte horiei buruz. Hurkoa errespetuz tratatzearen gainean, alderatu hiru erlijioek esaten dutena.

— Zure ustez, zer erakusten digu Jesussek elkarbizitza ona izan dezagun?  
— Zer gertatuko litzakete mundu guztiak Jesussek esan bezala jokatu balu?

Erlijioak errespetatzea  
Erlijio handiak

11

## Hurbildu ala aldendu egiten gaitu elkarrengandik?

— Bigarren saio honetan, ikasesperientziaren hasieran ageri den bigarren galdera planteatzen zaie ikasleei. Helburua da ikasleak konturatzea kulturen eta erlijioen arteko desberdintasunak aukera ematen dutela beste errealitate batzuk ezagutzeko eta elkarrekin bakean bizitzeko.

## Pertsona desberdinak, erlijio desberdinak, elkarbizitza ona

- Talde handian, *Pentsatu – Jakin-mina piztu – Ikertu pentsamendu-errutina* aplikatu kristautasunaren, judaismoaren eta islamaren ezaugarri garrantzitsuenak aztertzeko.
- Jarraian, ikasleei eskatu, bakarka, hiru hauren irudiei begiratzeko, eta galderei erantzuteko. Ondoren, ikasle bakoitzak taldearekin partekatu beharko du zertaz ohartu den. Hiru irudiekin Alderatu eta kontrastatu **pentsamendu-trebezia** egokituta aplikatzea iradokitzen da, ikasleei ondorio honetara heltzen laguntzeko: desberdintasunak egon arren, elkarbizitza baketsua izatea posible da.

— Ondorioko esaldia ozen irakurri: «Judeuek, kristauek eta musulmanek sinesmen desberdinak dituzte. Tenplu desberdinetan egiten dute otoitz, eta ez dute izen bera erabiltzen Jainkoa izendatzeko. Hala ere, batera eta bakean bizi daitezke». Ikasleei proposatu esaldia kopiatzea eta portfolioan gordetzea.

## Hitz jakintsuak

- **Elkarrekin ikasten.** *Erlijioak errespetatzea*, 90-91 orrialdeak. Jarduera hasi aurretik, erlijio handien eta haien tenpluen ezaugarriei buruzko deskribapena irakurri, eta proposatutako jarduerak egin.
- *Erlijio handiak baliabide digitala* egin. Jolas horretan, erlijio handi bakoitzari (judaismoari, kristautasunari eta islamari) dagozkion elementuak identifikatu behar dira.
- Ikasleak animatu hiru esaldiak bakarka irakurtzera eta haien esanahiari buruz gogoeta egitera.
- Ondoren, lau kideko taldeak osatu eta *Hiru minutuko geldialdia lan kooperatiboko teknika* aplikatu. Ikasleek esaldi bat adostu beharko dute, laburbilduz zertan diren antzekoak pertsonaien hiru esaldiak, besteen sinesmenekiko pertsonak merezi duten errespetuzko tratuari dagokionez.
- Talde bakoitzak adostu duen esaldia ozen irakurri behar du, eta taldeko kide bakoitzak bere portfolioan gordetuko du.

## Erantzunak

- Erantzun irekia. Judaismoaren, kristautasunaren eta islamaren arteko antzekotasunei eta desberdintasunei buruz partekatzen dituzten ezagutzen arabera izango da.
- Iradokitako erantzuna.
  - Elkarbizitza ona izan dezagun, Jesussek irakasten digu bestea maitatu eta errespetatu behar dugula, gugandik desberdina izan arren.
  - Mundu guztiak hala jokatu balu, liskarrak eta gerrak amaituko lirateke.

**Aniztasunak elkartu egiten gaitu!**

**Inguruan arrastoa uzten dugu**  
 Gelako kide senti daitezten, Julieri eta Faruki lagundu egin behar diezue iasurtzeko lehen asteetan. Badakizue beste kultura, erlijio eta ohitura batzuk dituztela. Haiak ebean bezala sentitzea nahi duzue, eta haien kultura nolakoa den jakin ere bai. Taldeka, egin elkarbizitza-plan bat, Julieri eta Faruki ingurune berria egokitzen laguntzeko.

— Plan bakoitzean hitz hauek erabiliko dituzue, edo elkarbizitzaren aldeko beste hitz batzuk:

**ENTZUTEA**   **HITZ EGITEA**   **BEGIRUNEA**   **ENPATIA**

— Elkarbizitzaren aldeko ekintzak ere sartu behar dituzue planean. Adibidez, Jesusek behartsuonkin erabili zituen jokabideak.

**Jesusen erredua**  
 17. or.

**BEHATU**  
 Itxi begiak. Hiru aldiz amas hartu, eta pentsatu kultura, erlijio eta ohitura desberdinak dituztenek zer ematen dizuten.

**HAUSNARTU**  
 Nola eragiten dute nire bizitzan? Nolakoa da nire eguneroko bizitza haiekin nagoenean? Aprobetxatzen ditut gure arteko desberdintasunak munduaren berri izateko eta gehiago jakiteko? Ahaztu baino lehen, idatzi burura etorri zaizun guztia.

**EKIN**  
 Pentsatu bi ekintza, zure inguruko elkarbizitza hobetzeko balloko dutenak. Ondoren, gainerako ikaslideei erakutsi behar dizkiezu.

Jesusek maitasunez eta elkartasunez jokatu zuen pertsona guztiekin; bereziki, babes gutxien zuten pertsonekin.

12

## Aniztasunak elkartu egiten gaitu!

Hirugarren saio honetan, kulturarteko elkarbizitza-plana sortzera animatzen dira ikasleak, ikasle berriei, Julieri eta Faruki, integratzen laguntzeko.

Hala, ikasleek proposatu zaien erronka betetzeko aukera izango dute: haien ohiturak, erlijioa eta bizimoduak ezagutzera, eta ikasgelako kide guztiak elkartzea.

### Inguruan arrastoa uzten dugu

— Jarduera hasteko, **Hamar aldiz bi pentsamendu-errutina** aplikatu, eta ikasleei proposatu zerrenda bat osatzea, kulturarteko elkarbizitza-planean agertu beharko luketen hamar hitzekin. Lehen lau hitzak testuak iradokitzen ditu: «entzutea, hitz egitea, begirunea eta enpatia».

- Ondoren, **Elkarrekin ikasten**: Jesusen erredua ataleko edukia irakurri eta proposatutako jarduerak egin.
- Berehala, aurreko errutina aplikatu berriro, hitz-zerrenda zabaltzeko eta osatzeko.
- **Barnekotasun jarduera**. Jarraian, bakarka eta hiru urrats jarraituz (**behatu**, **hausnartu** eta **ekin**), ikasleak honetara animatu: beste kulturetako pertsonen harremanak izateak dakarrenaz hausnartzera, elkarbizitza horrek norberaren bizitzarako egiten duen ekarpena aintzat hartzera, eta elkarbizitza hori hobetzeko bakoitzak egin ditzakeen bi ekintza zehatz proposatzera. Azkenik, ekarpenak partekatu eta ikasleei iradoki errazten iruditzen zaizkienak portfolioan idazteko.
- Amaierako esaldia ozen irakurri: «Jesusek maitasunez eta elkartasunez jokatu zuen pertsona guztiekin; bereziki, babes gutxien zuten pertsonekin». Gero, hari buruz hitz egin. Jesusek pertsona guztiekiko zuen maitasuna erakusten duten egintzak eta jokabideak proposatzeko eskatu ikasleei.

### Erantzunak

6. Erantzun irekia. Kulturarteko elkarbizitza-plana sortzea da jardueraren helburua.

**Gure mundua hobetzen**

Eguneroko bizitzan, Jesusek maitasunez jasotzen zituen pertsona guztiak. Ez zitzaion haien jatorria axola, eta bizitza osoan aritu zen beste pertsonak maitatzen.



**KULTURA ANIZTASUNAREN EGUNA**

Urtero ospatzen dugu Kultura Aniztasunaren Nazioarteko eguna. Festa horrek hauxe adierazten digu: kultura-aniztasuna behar-beharrezkoa da kultura desberdina duten pertsonen elkarbizitza hobetzeko; balta elkarriketa, inklusioa eta kooperazioa bultzatzeko ere.

**Ospa dezagun kultura-aniztasuna!**

Taldeka, proposatu zuen eskolan egiteko jarduerak. Aniztasunaren eguna ospatzea izango da jardueren helburua.

Proposamenak bota ondoren, gonbidatu zuen ikasleideak jardura horietan parte hartzea. Gogoan izan azpiko kontu hauek ulertu behar dituztela:

- Zein den jardueren helburua.
- Zein den ikasleideei bidali nahi diezuen mezu.
- Non eta noiz egingo diren jarduerak.

**Zer ikasi dut?**

- Bakoitzak ikur bat marraztuko du, kultura-aniztasunaz erantzuteko. Erabili pinturapoteak, errotuladoreak, koloretako arkatzak... Denon artean, aniztasunari buruzko horma-irudi koloretsua sortuko dugul!
- Gero, esan ozen zergatik den garrantzitsua aniztasuna eta zer egin dezakegun elkarbizitza hobetzeko.



13

## Gure mundua hobetzen

Laugarren saioan, ikasesperientzia amaitzeko, eskolan Kultura Aniztasunaren Eguna ospatzera animatu nahi ditugu ikasleak. Horretarako, askotariko jarduerak eta ekimenak antolatu behar dira.

Modu horretan, zeharka lantzen da 10. GJH, ikasesperientzia honen hasieran aipatu dena.

## Ospa dezagun kultura-aniztasuna!

- Hiru edo lau kideko lantaldeak osatu. Arkatzak erdira lan kooperatiboko teknika aplikatu, egin nahi den festaren irismenaren inguruan gogoeta egiteko eta hori lortzeko egin daitezkeen jarduerak proposatzeko.
- Ondoren, talde bakoitzak zehaztu beharko du zer jardura egingo dituen, zein den jardura horien helburua, eta noiz eta non gauzatuko diren. Ikasleei azpimarratu garrantzitsua dela ekimen horrek nola eragiten dien ohartzea (**eragina**) eta jardueren bidez ikasitakoa aplikatu ahal izatea (**transferentzia**).

- Ekimenak partekatu, eta esloganak eta mezuak sortu transmititu nahi diren ideiekin.
- Jarduerak prestatu eta arduradunen artean banatu.
- Aniztasunaren Eguna ospatu. Amaitutakoan, ikasle bakoitzak egun horretan sentitu duena adierazi beharko du.

## Zer ikasi dut?

- Ikasitakoari eta ikasteko moduari buruz hausnartu (**metaezagutza**), aniztasuna errespetatzearen eta besteak diren modukoak onartzearen garrantziari dagokionez. Horretarako, ikasgelan horma-irudi bat prestatu, ikasle bakoitzak aniztasuna adierazten duen sinbolo bat marraztu dezan. Ondoren, bizitako esperientziak eta gela elkarbizitza hobetzeko egin diren proposamenak partekatu.
- Ikasle bakoitzak bere portfolioan idatzi beharko du gehien gustatu zaion proposamena.

## NOLA EBALUATU

- Ebaluazio-fitxa.
- Konpetentziak ebaluatzeko errubrika, bai ikasleentzat, bai irakasleentzat. **Hauxe ikasiko duzu** hasierako atalean aipatzen diren konpetentziak eta ebaluazio-irizpideak biltzen ditu.
- Autoebaluazioko, koebaluazioko eta heteroebaluazioko tresnak, ikasleak ikasi dutenaz ohart daitezzen (formatu digitalean eskuragarri).

## Erantzunak

- **Gure mundua hobetzen.** Erantzun antzeztua. Ikasgelan Kultura Aniztasunaren Eguna ospatuko dute, talde bakoitzak proposatutako jarduerak eginez.
- **Zer ikasi dut?**
  - Erantzun grafikoa. Horma-irudia egin behar dute, aniztasuna irudikatzen duten sinboloekin.
  - Erantzun irekia. Aniztasunak norberarentzat duen garrantzia partekatzea da helburua.

## Ebaluazioa

Izena: ..... Data: .....

### 1 Irakurri pasarte hau, eta erantzun galderi:

#### Jesus eta samariarra

Emakumea benetan harrিতuta geratu zen, eta Jesusi esan zion:

—Nolatan zuk, judua izanik, eskatzen didazu edatekoa niri, emakume samariar honi? Izan ere, juduek eta samariarrek ez dute harremanik. Jesusek begiratu, eta esan zion Berak ura eman ziezaiokeela, bizia ematen duen ura. Emakumeak erantzun zion:

—Jauna, ez daukazu ura ateratzeko ezer. Nola emango didazu, hortaz, ura?

Eta Jesusek esan zion:

—Ur honetatik edaten duena berriro ere egarri izango da. Nik emandako uretik edaten duena, ordea, ez da sekula berriro egarri izango.

(Jn 4, 9-14)

- Pasarte horretan, nork hitz egiten du Jesusekin?
- Emakumea zergatik harrিতuta da, Jesusek edatekoa eskaini dionean?
- Juduen eta samariarren artean harreman ona zegoen?
- Zer irakatsi digu Jesusek, emakume samariarrarekin hitz egitera hurbiltzean?

### 2 Osatu testuak, laukiko hitzak erabiliz.

Judaismoa, Kristautasuna, Zaharreko, Korana, kristautasunak,  
Jainko, Biblia, Abrahami, Islama, Allah, Mahoma, Berriko.

\_\_\_\_\_ da Jainko bakarrean sinesten duen erlijio zaharrena.

\_\_\_\_\_ eta haren ondorengoei buruzko Bibliako kontakizunak hartzen dira juduen herriaren jatorritzat. Judaismoak eta \_\_\_\_\_

Itun \_\_\_\_\_ liburuak partekatzen dituzte.

\_\_\_\_\_ kristauen erlijioa da. Haien ere \_\_\_\_\_ bakarrean sinesten dute. Kristauen \_\_\_\_\_ Itun Zaharreko liburu juduek eta Itun \_\_\_\_\_ liburuek osatzen dute.

\_\_\_\_\_ musulmanen erlijioa da. Jainko bakarra dagoela sinesten dute, \_\_\_\_\_.

Haien liburu sakratua \_\_\_\_\_ da, eta haien profeta, \_\_\_\_\_.

### 3 Sortu zazpi hitzez osatutako hodei bat. Hitz horiekin, laburtu beste kultura eta erlijioetako pertsonen arteko errespetuaren balioa eta elkarbizitzaren garrantzia.

## ERANTZUNAK

### 1. Uste duzuna baino hurbilago

1. – Emakume samariar bat ari da Jesusekin hizketan.
  - Harritu egin da, juduek eta samariarrek ez zutelako harreman ona.
  - Ez.
  - Jesusentzat pertsona guztiak berdinak ziren: denekin elkartzen zen, errespetuan eta maitasunean oinarrituta.
2. Judaismoa - Abraham - kristautasunak - Zaharreko.
  - Kristautasuna - Jainko - Biblia - Berriko.
  - Islama - Allah - Korana - Mahoma.
3. Erantzun artistikoa. Zazpi hitz dituen hodei bat sortu behar dute ikasleek, beste kultura eta erlijioetako pertsonen arteko elkarbizitza adierazteko. Adibidez: errespetua, tolerantzia, berdintasuna, adiskidetasuna, aniztasuna, elkarriketa eta bakea.

## KONPETENTZIAK EBALUATZEKO ERRUBRIKA

Adierazleak	Lorpen-mailak				Guztira
	1	2	3	4	
Desberdintasuna identifikatzea eta aintzat hartzea, eta Jainkoaren begietara denok berdinak garela ulertzea.	Desberdintasun gutxi batzuk identifikatzen eta aintzat hartzen ditu, baina kosta egiten zaio berdintasunaren esanahia ulertzea.	Desberdintasuna identifikatzen du, baina oraindik ez du guztiz ulertzen berdintasunaren balioa.	Desberdintasun batzuk aberastasun gisa identifikatzen ditu, eta Jainkoaren aurrean denok berdinak garela onartzen du.	Desberdintasunak dakarren aberastasuna identifikatzen du, eta Jainkoaren aurrean denok berdinak garela ulertzen du.	
Besteen ezaugarri kulturalak eta erlijiosoak ezagutzeko jakin-mina izatea.	Beste pertsonen ezaugarri kultural eta erlijioso oso gutxi identifikatzen ditu, eta haiekiko axolagabe agertzen da.	Beste pertsonen ezaugarri kultural eta erlijioso batzuk identifikatzen ditu, eta haiekiko jakin-mina izan ohi du.	Ondo identifikatzen ditu beste pertsonen ezaugarri kulturalak eta erlijiosoak, baina kosta egiten zaio haietako batzuk onartzea.	Beste pertsonen ezaugarri kulturalak eta erlijiosoak ezagutzen ditu, eta haiekiko jakin-mina izan ohi du.	
Ebanjelioetan adierazten diren kristautasunaren balioak ezagutzeko.	Ez du ia interesik erakusten ebanjelioak eta haien edukiak ezagutzeko.	Ebanjelioko pasarte batzuk ezagutzen ditu, baina zailtasunak ditu islatzen dituzten balioak aurkitzeko.	Ebanjelioetan islatzen diren balioetako batzuk soilik identifikatzen ditu.	Erraz identifikatzen ditu ebanjelioetan islatzen diren balioak, eta haiekin identifikatzen da.	
Errespetuaren eta elkarbizitzaren balio ebanjelikoak eguneroko bizitzan aplikatzea.	Balio ebanjeliko batzuk identifikatzen ditu, baina asko kostatzen zaio bere eguneroko bizitzan aplikatzea.	Balio ebanjelikoek eguneroko bizitzan duten garrantzia aitortzen du, baina zailtasunak ditu haiek aplikatzeko.	Balio ebanjelikoetako batzuk soilik identifikatzen ditu, baina bere eguneroko bizitzan aplikatzeko grina du.	Balio ebanjelikoak identifikatzen eta partekatzen ditu, eta bere eguneroko bizitzan aplikatu ohi ditu.	

## ERANTZUNAK

### 2. Jainkoaren Erreinuak Kulturaren eraikitzaileak

#### Mundu-ikuskerak, kristau-tradizioa eta kultura

##### --● Jesusen eredia

1. Mt 19, 13-15: haurrak. Lk 10, 38-42: andreak. Lk 18, 35-43: gaixoak. Mt 25, 35: pobreak.
2. Iradokitako erantzuna.
  - Bisitatu, lagun egin eta, zerbait behar badu, lagundu.
  - Mutilak eta neskek berdin tratatu, generoagatik bereizketarik egin gabe.
  - Maitasunez tratatu, zereginekin lagundu, ez gutxietsi ahulagoak izateagatik.
  - Haien beharrei erantzun, eta daukaguna haiekin partekatu.

##### --● Jesus eta samariarra

1. Iradokitako erantzuna. Jesusek ez du bereizketarik egiten juduen eta samariarren artean, haiek etsaiak diren arren. Guk berdin jokatu behar dugu, lagunak eta etsaien artean bereizketarik egin gabe, guztiok Jainkoaren seme-alabak garelako.
2. Erantzun artistikoa. Hitzak lainoa sortu behar dute ikasleek, juduen eta samariarren arteko elkarbizitza hobetzeko. Hitz hauek jar daitezke: adiskidetzeta, ulermena, solidaritatea, lankidetzeta, elkarbizitza baketsua, tolerantzia, onarpena...
3. Erantzun irekia. Gutun bat idatzi behar dute ikasleek, gatazkan dauden herrialdeetako pertsonak beraien arteko elkarbizitza hobetzen eta desberdintasunak gainditzen laguntzeko asmoz. Adibidez: herrialde hartan bakea eta elkarbizitza posible izateko desira adieraztea; bizi dutenarengatik enpatia eta ulermena erakustea; historian zehar konpondu diren liskarren edo bakearen alde lan egin duten pertsonen adibideak ematea; besteak zintzotasunez entzuterak eta ulertzera animatzea.

### 3. Konpromisoa Guztion Etxearekin

#### Mundu pluralean bizitzea, guztion etxea eraikitzeko

##### --● Erlijioak errespetatzea

1. Erantzun irekia. Hiru erlijio monoteistetako bati buruzko ikerketa-lana egin behar dute ikasleek.
  - Iradokitako erantzuna. Erlijio batzuen eta beste ezaugarriak ezagutzen baditugu, errazagoa delako haiek praktikatzeko dituztenen bizimodua ulertzea eta, hala, haiekin batera bizitzea, elkar errespetatuz.
2. Erantzun irekia eta plastikoa. Horma-irudi bat sortu behar dute ikasleek, elkarbizitzarako lagungarria den ondorioen batekin. Ondorio gisa, hauek kontuan hartzea iradokitzen da: kulturen arteko komunikazioa eta elkarbizitza sustatzea; aniztasuna aintzat hartzea eta errespetatzea; eta elkarrekin lan egitea, guztion ongiaren alde.

## Sakondu +

Izena: ..... Data: .....

1. Sailkatu termino hauek, dagokien erlijioaren arabera. Kontuan izan termino batzuk erlijio bat baino gehiagoren parte izan daitezkeela.

Abraham — Allah — Juduen Biblia — Korana — gurutzea — Daviden izarra  
Ebanjelioak — eliza — Jesus — Mahoma — ilargi-erdia — meskita — sinagoga

Judaismoa	
Kristautasuna	
Islama	

2. Osatu esaldi hauek laukiko hitzak erabiliz.

elkarbizitza, seme-alabak, tenplu, maitasuna, Juduek, sinesmen, neba-arreba, behar, izen, musulmanek.

- Jesusek pertsona guztiak \_\_\_\_\_ gisa tratatzen irakasten du, izan ere, denok gara Jainkoaren \_\_\_\_\_.
- \_\_\_\_\_, \_\_\_\_\_ eta kristauak \_\_\_\_\_ desberdinak dituzte, \_\_\_\_\_ desberdinetan egiten dute otoitz, eta \_\_\_\_\_ desberdinak erabiltzen dituzte Jainkoa izendatzeko, baina gai dira elkarrekin \_\_\_\_\_ baketsua izateko.
- Jesusek bere \_\_\_\_\_ eta solidaritatea erakutsi zien pertsona guztiei, bereziki \_\_\_\_\_ handiena zutenei.

3. Esaldi hauetan akatsak daude. Idatzi zuzen.

- Ez dugu pertsona guztiak ondo tratatu beharrik, gu ondo tratatzen gaituztenak soilik baizik.

\_\_\_\_\_

- Hobeto tratatu behar ditugu gure jatorri sozial, kultura edo erlijio bera dutenak.

\_\_\_\_\_

- Zerbait behar dugunean, pertsonak lagundu egin behar digute.

\_\_\_\_\_

- Pertsona zuzenak soilik dira Jainkoaren seme-alaba; haiek soilik errespetatu behar dira.

\_\_\_\_\_

## Erantzunak

### 1. Aniztasunera bidean

#### Sakondu +

1. Judaismoa	Abraham, Juduen Biblia, Daviden izarra, sinagoga
Kristautasuna	Abraham, gurutzea, Ebanjelioak, eliza, Jesus
Islama	Allah, Korana, Mahoma, ilargierdia, meskita, Abraham*

\*Ikaslearen liburuan aipatzen ez bada ere, garrantzitsua da azpimarratzea Abraham profeta garrantzitsua dela Islamean ere.

### 2. Neba-arreba - seme-alabak.

Juduek - musulmanek - sinesmen - tenplu - izen - elkarbizitza.

Maitasuna - behar.

### 3. Jesusek irakatsi zigun pertsona guztiak tratatu behar ditugula ondo.

Ez da inor diskriminatu behar bere generoagatik, jatorri sozialagatik, kulturagatik edo erlijioagatik.

Pertsonak ez gaude elkarri laguntzera behartuak, baina bidezkoagoa eta solidarioagoa den mundua eraiki nahi badugu, elkarri laguntzera gonbidatuta gaude.

Pertsona guztiok gara Jainkoaren seme-alabak, eta errespetatuak izan behar dugu.

## Zabaldu +

Izena: ..... Data: .....

### 1 Irakurri pasarte hauek, eta erantzun galderi:

Jesus Tiro eta Sidon aldera joan zen. In-guru hartako emakume kanaandar bat deiadarka etorri zitzaion:

—Izan erruki nitaz, Jauna, Daviden semea zarena! Nire alaba sufritzen ari da, deabruaren eraginez.

Jesusek ez zion hitzik erantzun. Ikasleek, hurbildu eta eskatu zioten:

—Bidali ezazu, deiadarka dator eta gure atzetik.

Hark erantzun zuen:

—Israelgo ardi galduengana soilik bidali nau Jainkoak.

Baina emakumea, hurbildurik, hanketara makurtu zitzaion, esanez:

—Lagundu iezadazu, Jauna!

Jesusek erantzun zion:

— Ez dago ongi seme-alabei ogia kendu eta txakurrei botatzea.

Emakumeak erantzun zion:

—Halaxe da, Jauna. baina txakurrek ere jan ohi dituzte nagusien mahaitik erortzen diren ogi-apurrak.

Orduan, Jesusek esan zion:

—Emakumea, handia da zure fedea! Gerta bekizu nahi duzuna.

Eta, une hartan, alaba sendatu egin zen.

(Mt 15, 21-28)

Jesus Kafarnaumen sartu zen. Erromatar ehuntari batek morroi bat zuen, oso maitea; morroia gaixo zegoen, hiltzorian. Jesusen berri entzunik, ehuntariak judu-buruzagi batzuk bidali zizkion, morroia sendatzera etortzeko eskatuz. Joan ziren Jesusengana, eta arren eskatu zioten, morroiak mesede hori merezi zuela esanez.

—Maite du gure herria, eta berak eraiki digu sinagoga ere.

Jesus haiekin joan zen. Etxera hurbiltzen ari zela, ehuntariak lagun batzuk bidali zizkion esatera:

—Ez hartu nekerik, Jauna; ni ez naiz inor zu nire etxean sartzeko. Horregatik, ez naiz ausartu neu zuregana joaten. Aski duzu hitz bat esatea nire morroia sendatzeko. Nik ere soldaduak ditut mendean. Bati joateko agintzen badiot, joan egiten da; besteari etortzeko agindu, eta etorri egiten da; morroiari zerbait egiteko esan, eta hala egiten du. Hau entzutean, Jesus harritu egin zen eta, atzetik zetorkion jendearengana itzulirik, esan zuen:

—Israelen ere ez dut aurkitu horrelako federik. Mandatariak etxera itzuli zirenean, sendatuta aurkitu zuten morroia.

(Lk 7, 1-10)

— Zertan dira antzekoak?

---

---

— Zertan bereizten dira?

---

---

— Zer antzekotasun eta desberdintasun iruditzen zaizkizu deigarriak?

---

---

— Zer ondorio atera duzu, antzekotasunak eta desberdintasunak aztertu ostean?

---

---

## Erantzunak

### 1. Aniztasunera bidean

#### Zabaldu +

Iradokitako erantzuna.

- Testu batean zein bestean, Jesusi laguntza eske hurbiltzen zaizkion bi pertsonaren istorioak kontatzen dira. Emakume kanaandarra eta ehuntaria atzerritarrak dira, hau da, ez dira Israelgo herritarrak. Hala eta guztiz ere, biek zalantzarik gabe sinesten dute Jesus gai dela eskatutakoa emateko.

Testuinguru horretan, ikasleek eta juduek bereizketa garbia egiten dute arreta eskaintzea merezi duten eta ez duten pertsonen artean. Hala ere, Jesusek ez dio kasurik egiten diskriminazio horri, eta behar duenari arreta eskaintzen dio, pertsona nor den kontuan hartu gabe.

Bai emakume kanaandarrak, bai ehuntariak, uste dute ez direla inor Jesusen arreta jasotzeko, baina Hark ez ditu kontuan hartzen haien gutxiagotasun-sentimenduak, eta bi pertsonen eskariak betetzen ditu. Jesus harritu egiten da, onerako, bi pertsona haiek fede handia erakusten baitute, juduak ez diren arren.

- Badirudi Jesusek ez diola kasurik egiten emakume kanaandarrari, baina, aldiz, ehuntariaren etxera hurbiltzen da. Ikasleek emakumea bidaltzeko eskatzen diote Jesusi; juduek, aldiz, ehuntariari laguntzeko eskatzen diote. Emakume kanaandarra asko tematzen dela dirudi, eta ehuntaria, dirudieenez, ez da gehiegi tematzen.
- Esanguratsuena da Jesusek, azkenean, ez duela bereizketarik egiten juduen eta juduak ez direnen artean, ezta arreta merezi duela dirudienaren (adibidez, ehuntaria) eta gogaikarriak direnen (adibidez, emakume kanaandarra) artean ere. Horren ordez, laguntza ematen die fedez eskatzen dioten eta beragandik zerbait jasotzea espero duten guztiei.
- Erantzun irekia. Ikasle bakoitzak ateratzen dituen ondorioen arabera izango da.